

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

21/2105 Foru Agindua, abuztuaren 12koa, baimena ematen diona Francisco Clavijo Rodríguez Zambranako Udaleko idazkariari, orobat Iruña Okako Urkideztako idazkaritza lanetan ere jarduteko, metaketa bidez

Foru Aldundi honetara iragan uztailaren 23an heldu zen idazki baten bidez, Iruña Okako Urkideztaren jarduneko lehendakariak eskatu du Francisco Clavijo Rodríguez Zambranako Udaleko idazkariari baimena eman dakiola orobat Urkideztako idazkaritza lanetan ere jarduteko, metaketa bidez

Halaber, iragan uztailaren 23an, Francisco Clavijo Rodríguez jauna eta Zambranako Udala eskatutako izendapenarekin ados agertzen diren idazkia ere heldu zen Foru Aldundi honetara.

Lehenengo eta behin, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak 2012ko azaroaren 13an hartutako ebazpenaren bidez, Iruña Okako Urkideztza salbuetsi egin zela estatu osorako gaikuntza duen toki administrazio funtzionario bati erreserbatutako idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostu bat sortu eta mantentzeko eginbeharretik, adieraziz lanpostu horri berez dagozkion eginkizunak Urkideztza osatzen duten erakundeetakoren batean diharduen eta estatu osorako gaikuntza duen funtzionario baten bidez beteko zirela.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Arabako Toki Administrazioeko Idazkari, Kontuhartzaile eta Diruzainen Elkargoak, eta errekurtsu hori ezetsi egin zuen Erakunde Harremanetarako Sailburuordeak, 2013ko apirilaren 22ko ebazpen baten bidez.

Beste alde batetik, 2013ko apirilaren 19an, Foru Aldundi honetara heldu zen Iruña Okako Udaleko (Urkideztza osatzen duten toki erakundeetako bat) idazkari titularraren idazkia, agerian jartzen zuena Urkideztako idazkaritza lanak berari egokitu beharko zitzaizkiola baina, aipatutako udalean egiten duen lana dela eta, ezinezkoa izango zitzaioela horiek bere gain hartzea.

Gorago esan den bezala, Urkideztza estatu osorako gaikuntza duen toki administrazio funtzionario bati erreserbatutako idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostu bat sortu eta mantentzeko eginbeharretik salbuesten duen Autonomia Erkidegoko zuzendaritza organoaren ebazpenak zehazten du lanpostu horri berez dagozkion eginkizunak Urkideztza osatzen duten erakundeetakoren batean diharduen eta estatu osorako gaikuntza duen funtzionario baten bidez beteko zirela. Hala ere, atea zabalik uzten du eginkizun horiek betetzeko beste era batzuei.

Hala, ebazpen horrek honako hau adierazten du, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazio funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen hornidura arautzen duenak, 4. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoa aipatuz:

“agindu honekin bat etorritik, salbuespena ematekotan salbuespenetako lanpostuko eginkizunak hiru bidetatik bete daitezke: udal elkarteak osatzen duten udaletakoren batean diharduen eta estatu osorako gaikuntza duen funtzionario baten bidez; Aldundien asistentzia sistemaren bidez, edo partzuergoak osatzen duten udaletakoren batean (edo horien elkartean) funtzionario klase horientzat erreserbatutako lanpostua betetzen duen eta estatu osorako gaikuntza duen batean eginkizunak metatuz (1732/1994 Dekretuaren 31.2 artikulua)”

Eta honako hau gehitzen du:

“hala ere, partzuergoak metatze araubidea aukeratzekotan, lanpostuko eginkizunak izendatutako funtzionarioak partzuergoko udalean betetzen duen lanpostu nagusiko eginkizunei erantsi ordez, Foru Aldundiak baimendu beharko du metaketa, 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz.”

Aurretik esan den guztia ikusirik, salbuespena onartzen duen ebazpenak adierazten badu ere idazkaritza lanpostuko eginkizunak partzuergoa osatzen duten erakundeetakoren batean diharduen eta estatu osorako gaikuntza duen funtzionario baten bidez beteko direla, argi dago partzuergoak aukera dezakeela eginkizunak metatzea horrelako gaikuntza duen eta eginkizun horiek partzuergoan sartuta ez dagoen toki erakunde batean betetzen dituen funtzionario bategan, zeren eta 1732/1994 Errege Dekretuaren 31.2 artikulua honela baitio:

“Halaber, metaketak erabaki daitezke idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua mantendu beharretik salbuetsitako udal edo erakundeetan eginkizun horiek betetzeko.”

Metaketa horiek honako hauen alde erabaki beharko dira:

“gaikuntza nazionala duten eta, dagokion autonomia erkidegoaren lurralde eremuan, beraiei erreserbatutako lanpostu bat betetzen dauden funtzionarioak. Ez da beharrezkoa izango eginkizunak metatzen zaizkion lanpostua partzuergoa osatzen duten erakundeetako batekoa izatea.

Aipatutako 31. artikuluko 1. idatz zatiak, azken paragrafoan, honela dio:

“toki korporazioak eskatuta egingo da metaketa, dagokion funtzionarioaren eta berak destinoa duen erakundearen adostasunarekin”.

Azkenean, adierazi behar da 1732/1994 Errege Dekretuaren 31. artikuluko 3. idatz zatiak hau agintzen duela:

“3. Metatutako eginkizunak betetzeak eskubidea emango du lanpostu nagusiko ordainsarien ehuneko 30era hel daitekeen sari bat jasotzeko”.

Oraingo kasuan, kontuan hartu behar da betetzen direla eginkizunak metatzea erabaki ahal izateko legez ezarritako betebeharrak, jaso baitira Iruña Okako Urkideztaren eskaera espresua, baimen eskaeraren xede den funtzionarioaren adostasuna, zeina Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalakoa den, eta funtzionario horrek lan egiten duen Zambranako Udalaren adostasuna.

1732/1994 Errege Dekretuaren 31. artikuluko 3. idatz zatiak xedatzen duen bezala, metatutako eginkizunak betetzeak eskubidea emango dio izendatutako funtzionarioari lanpostu nagusiko ordainsarien ehuneko 30era hel daitekeen sari bat jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiarengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea Francisco Clavijo Rodríguez jaunari, estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalako funtzionario eta Zambranako Udaleko idazkari titularrari, orobat Iruña Okako Urkideztaren idazkaritza lanetan ere jarduteko, metaketa bidez.

Bigarrena. Urkideztako idazkaritza eginkizunak betetzeak Francisco Clavijo Rodríguez jaunari eskubidea emango dio Zambranako Udaleko idazkaritza lanpostuari dagozkion ordainsarien ehuneko 30era hel daitekeen sari bat jasotzeko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Zambranako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 12a

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ